

FUNTZIONAMENDU OROKORRA

- Eskolako ordutegia:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan	Goizez	9:00etatik 12:30etara
	Jantokia	12:30etatik 15:00etara
	Arratsaldez	15:00etatik 16:30etara

2 urteko gela: sarrera malgua, 9:00etatik 9:30etara.

- Arratsaldez, 14:50ak baino lehen, etxera doan ikasleria ez da sartuko eskolako eremuan.
- Sarrera eta irteeratan **puntualitatea** eskatzen da. Ikasleak txirrina entzutean eskolara sartuko dira. Sarrera eta irteerak ez-ohiko ordutegietan izanez gero, tutoreari idatziz jakinarazi beharko zaie. Eskola-orduetatik kanpo gelak itxita egongo dira.
- Zuen seme-alaba faltatu edo beranduago etorri ezker, tutoreari komunikatu behar zaio. Eskola orduetan ateratzeko, baimena sinatu behar da (eredua tutoreari eskatu edo idazkaritzan hartu). Bestetik, zuen seme-alaba eskolatik lehenago irten behar bada, **bere bila nor etorriko den jakin** behar dugu.
- Sendagaiak etxean hartu behar dira ahal den guztietan. Eskolako ordutegian beharrezkoa izatekotan, gurasoen eta medikuaren agindua ekarri behar da. Baimen orria tutoreari eskatu edota idazkaritzan hartu.
- Gurasoak, eskolako antolakuntzan ordezkaturik egoteko eskubidea eta betebeharra duzue, baita informazioa jasotzeko eta ideiak ekartzeko ere. Ekarpen, zalantza edo kexa bat argitu edo aurkeztu nahi baduzue, erabil itzazue eskolan dituzuen bideak:
 1. Zuen umearen tutorearengana zuzendu. Bilera egunak, asteazkenak 12:30etatik 13:30etara dira. Tutorea sarrera irtengo da familien bila.
 2. Zuzendari taldearekin hitz egin.
- Gurasoek, eskolako funtzionamenduan parte hartu dezakete hurrengo eratan:
 - IGEk (Ikastetxeko Guraso Elkarte).
 - ESKOLA KONTSEILUA
 - Geletako BOKALAK
- Eskolarekin harremanetan jartzeko:
 - LEHEN HEZKUNTZAKO Tel.: 944 53 10 20
 - ESKOLA KONTSEILUA Tel.: 944 53 11 41
 - emaila: cepgorondagane@yahoo.es